

Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

► **To cite this version:**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria. Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean. 2010. artxibo-00698794

HAL Id: artxibo-00698794

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00698794>

Submitted on 17 May 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Gandara eta De la Quadra: Gernikako eta Bermeoko euskara XVIII. mendean¹

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria
EHU/UPV
ariane.ensunza@gmail.com

1. Sarrera

Lan hau aurrerago egin nahi ditugun ikerketen hastapeneko lantxo bat da. Gerora egin nahi ditugun ikerketa horietan, Busturialdeako euskarak denboran eta espazioan jasandako bilakaera aztertu nahi dugu. Nolanahi ere den, Busturialdeako euskara aztertzen hasteko, beharrezkoa da, beste edozein lekutako euskara aztertzerakoan bezala, honen iragana ahal bezain zehatzen ezagutzea. Horregatik, oraingo lan hau egiteko Busturialdeako herrietako idatzizko lekukotasun zahar batzuk bildu eta aztertu ditugu; Gandara eta De la Quadraren testuak, hain zuzen ere.

Ikergai diren autore biak XVIII. mendekoak dira, baina kontuan izan behar da 20 urteko tartea dagoela bi testuen artean, Gandararenak 1764ko data baitauka eta De la Quadrarenak 1784koa. Bestalde, Gandara gernikarra izanik, bertako euskaraz idatzi zuela pentsa genezake; De la Quadrak, ostera, Bermeoko euskararen.

Lan honetan, lehenbizi aztergai ditugun autoreen aurkezpena egingo dugu, bakoitzaren bizitza laburbildu eta egin dituzten lanak aurkeztu, testuingurua hobeto ezagutzeko. Honen ostean, testuen azterketa egingo dugu ezaugarri batzuk aterako ditugu eta Gandara eta De la Quadraren idazkeraren arteko berdintasun eta desberdintasunak zein diren ikusiko dugu. Garai bertsuan idatzitako bi herrietako testuak izanik, lan honetan bi herrietako euskararen arteko konparaketa egiten saiatuko gara eta ahal den neurrian gaur eguneko herri horietan egiten den euskararekin alderatuko dugu. Bestalde, Gandararen testuetan urteetan zehar gertatutako aldaketetan ere jarriko dugu arreta, baita De la Quadraren eta *XVIII. mendeko Bermeoko hirugarren eskuizkribuaren* artean dauden desberdintasunetan ere. Honekin, Gernika eta Bermeoko euskarak bi mendetan izan duen bilakabidea erakutsi nahi da eta, horrez gain, herri bien artean

¹ 2010-2011 ikasturtean Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako masterreko Dialektologia I izeneko ikasgaietan Iñaki Caminorentzat egindako lana da honako hau.

leudekeen antzekotasun eta desberdintasunak ere. Lanarekin amaitzeko, ondorio orokor batzuk aterako ditugu.

2. Autoreak

2.1. Gandara

Sebastian Antonio de la Gandara XVIII. mendeko idazle gernikarra izan zen. Jose Antonio Arana Martijaren arabera (1984:505), 1700 urtearen inguruan jaio zen eta 1780 inguruan hil. Gernikako Andra Maria Parrokiako apaiz izan zen 1749ra arte eta zazpi urtez Madrilen egon bazen ere (1749-1756), 1757an Gernikara itzuli zen. Bere bizitzan zehar gaztelaniazko lan batzuez gain, euskarazko 6 lan idatzi zituen (Arana Martija, 1984: 506-507):

- 1) 1757→ *Gabon Canda del año de 1757.*
- 2) 1762→ *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte 1762.*
- 3) 1764→ *Guernicaco Gabon Cante. Hurte 1764.*
- 4) 1768→ *Ama maitegarriari zortziko. Cecellaren 3. Hurte 1768.*
- 5) 1768→ *Ama maitegarriari bere jaiotzan. Cecellaren 14garrenean. Urte 1768.*
- 6) D.g. → *Ardaoaren ganian.*

Ikusita Gandarak 10 urteko aldea duten lanak idatzi zituela, ahal den neurrian Gandara beraren euskarak 10 urtean izandako bilakaera aztertzen saiatuko gara, Gernikako euskara nondik nora aldatu den ikusteaz gain, nola aldatu den ikusten saiatzeko.

2.2. De la Quadra

Gidor Bilbaok dioskunez (1997: 249), Nicolás Manuel de la Quadra 1713an jaio zen. Jatorriz Bilbokoa zen, aita (eta honen gurasoak) Somorrostrokoa zuen eta ama Bilbokoa (eta honen aita Villa Lonjin-ekoa eta ama Iurretakoa). 13 urtera arte, behintzat, Bilbon bizi izan zen, baina 1784ko *Doctrina* Bermeoko frantziskotarren komentuan sinatu zuen, beraz, badakigu 71 urterekin Bermeon zegoela. Bi lan idatzi zituen eta gaur egun Markinako fraide karmeldarren komentuan daude biak:

- 1) 1784→ *1. Doctrina Christinaubarena.*

- 2) 1784→ *Exercicio santo de ayudar a bien morir, compuesto y sacado de autores que aqui se citan.*

Ikusten denez, De la Quadraren lan biak urte berekoak dira, beraz, ezin genezake Gandararekin bezala, urteetan zehar bere euskarak jasandako bilakaera aztertu. Hala ere, Gidor Bilbaok² gure eskuetan jarri zuen *Bermeoko XVIII. mendeko hirugarren eskuizkribua* delakoaren transkribaketa. Eskuizkribua Euskaltzaindiko bibliotekan dago, baina ez dugu aukerarik izan esku artean izateko, beraz, Bilbaok egindako transkribaketa baino ez daukagu momentuz. Bilbaok berak esan zigunez, eskuizkribua ez dago datatuta, XVIII. mendekoa dela dakigun arren eta, gainera, ez da baztertzen De la Quadrak berak idatzia izatea. Hala ere, aurreragoko atal batean aztertuko dugu zehatzago bi eskuizkribuen artean dauden alde eta berdintasunak.

Esan bezala, De la Quadra jatorriz Bilbokoa zen eta 71 urterekin, behintzat, Bermeon zegoen. Honek zalantzak sortzen dizkigu testuaren fidagarritasunaren inguruan. Mesfidati azaltzen gara testuaren aurrean, ez baitakigu zenbateraino islatzen duen autoreak herri honetan XVIII. mendean hitz egiten zen euskara, jaiotzez bertakoa ez izanik. Hala ere, berak dio Bermeon eta honen inguruko herrietan hitz egiten den modura idatzi duela, bertako jendearentzat egina dagoelako batez ere:

...y a más va escrita con algún cuidado, sacada de autores y en vascuenze usual y tribal de este recinto de Bermeo, Mundaca, Albóniga, etc. en términos usuales patrióticos y significativos con que se explican y dan a entender en sus conversaciones, ya porque así se pidió se dispusiera y ya por el útil que de ello se origina; y en quanto en mí dependa, desprecio el decir no va en términos que en todo el recinto de Viscaya entiendan, porque si solo vascuenze saben entenderán con cortissima diferencia todo, a más de que si así avíamos de escribir, era necesario escribir para cada lugar, villa, etc. (Doc. iv-v)

...Zeriana zeriala notadun adisquide maitea: bateti, liburuchu au eguin edo atera da eusquera modu au adituten daben lecuraco... (Doc. 122-123)

² Bihoakioz, bide batez, nire esker handienak.

... se ha procurado usar de un estilo y términos usuales y más adaptados al bascuense de este recinto de Viscaya [*eskuineko alboan*: Máxime Berm., Mund. etc] (Ex.112-114)

Ez dakigu De la Quadrak zenbateraino asmatu zuen inguru hartako euskara islatzerakoan, baina hau denez daukagun garai hartako Bermeoko lekukotasun bakarra, honetara mugatu beharko dugu besterik agertu ezean. Gidor Bilbaoren artikuluan (1997: 255) esaten denez, ba omen da 1780an Bermeo ingururako «devoto batec» Bilbon argitaratutako liburutxo bat, Lacombe-k 1910ean *RIE*en argitaratutako ohar bibliografikoetan aurkezten duena, baina, zoritxarrez, galdua dago. Bestalde, De la Quadraren lanak Larramendiren *Diccionario Trilingüe* (1745) argitaratu ostekoak badira ere, oraindik mendebaleko testuetara Larramendiren eragina bere osotasunean heldu aurrekoak dira (Bilbao, 1997:252-253). Hala ere, De la Quadrak bere lanetan Larramendi aipatzen du, beraz, ez dago zalantzarik ezagutu behintzat egiten zuela.

3. Testuen azterketa

Gandara eta De la Quadraren testuen arteko konparaketa egiteko, Gandararen testuetatik 1757koa, 1762koa eta 1764koa hartu ditugu, aurrerago ikusiko dugunez, 1764az geroztiko testuetan aldaketak nabari daitezkeelako hauetan. Halaber, aukeratutako ezaugarri jakin batzuen arteko konparaketa egingo dugu, lana zehatzagoa izan dadin eta garrantzia duten ezaugarriek bakarrik erreparatzeko, bestela luze joko liguke eta, gainera, txikikerietan erortzeko arriskua legoke. Onartu beharrean gaude ezaugarrien hautaketa, batez ere gaur egungo ikuspegitik egin dela, hau da, gaur egun Bermeon eta Gernikan egiten den euskararen ezagutzatik abiatuta. Horrela, bada, bi herrien artean gaur egun dauden desberdintasunak hartu ditugu batez ere eta XVIII. mendeko testu hauetan aurkitzen dena aztertu dugu, gaur egungo ezaugarriak XVIII. mendean zein egoera zeukaten ikusteko, hau da, ezaugarri zaharrak diren ala azken bi mendeetan egindako berrikuntzak diren aztertzeko. Berrikuntzok edo arkaismook seguruenik ez ditu Bermeoko edo Gernikako euskarak bere kabuz soilik egin, inguruko isoglosen eraginez baizik. Horregatik, Bermeoko eta Gernikako euskararen artean gaur egun dagoen desberdintasuna XVIII. mendean zenbaterainokoa zen ere ikus genezake

modu honetara eta bi herrien arteko isoglosak non zeuden eta norantz aldatu diren ere, aldatu badira, behintzat. Caminoren aipu hau gogoan izanik aukeratu ditugu ezaugarriak:

Etenak eta loturak finkatzeko baliagarri diren hizkuntza-ezaugarriak zein diren jabetu ondoan, hauen guztien artean lanerako egokienak hautatzea da kontua. (Camino 2004: 75-76)

Jakina da testu hauetatik lan honetan aurkezten dena baino informazio gehiago atera daitekeela, baina gure helburuak orain bestelakoak dira. Etorkizun hurbil batean, seguruenik, erreparatuko dugu bestelako kontuetan.

Taula moduko batera ekarrita, hauek lirateke Gandara eta De la Quadraen testuetan aurki genitzakeen antzekotasun eta desberdintasunak:

Fonologia

	GANDARA	DE LA QUADRA
1) u + V →	<i>gauea, buruac, ceruac</i>	<i>santube, desterratubac, erreinuba</i>
2) i + V →	<i>guztiac, habia, andia</i>	<i>gustija, oguija</i>
3) a + a →	ea: <i>eusquerea, direanac, Virjinearen</i>	ia: <i>criaturia, penia, berbia, personia</i>
4) e + a →	ea: <i>jabea, bitarteac, bear</i>	ia: <i>zanian, bihar, egunian</i>
5) o + a →	ez dago adibiderik	oa: <i>escumacoa, benetacoa, osoa</i>
6) hitz hasieran	<j>: <i>jayo, jausten</i>	<i>jajo (eta jayo), jajac, jatorrisco, jazi</i>
Baina	<y> ere: <i>yayo, yacaz, yaztea</i>	ez dago horrelakorik
7) <i>izan</i> 1.p. sng. →	<i>enas, nas</i>	<i>naiz, nas, naz</i>

Morfologia

Izenaren morfologia

	GANDARA	DE LA QUADRA
1) soziatibo sng. →	-gaz: <i>beragaz</i>	-gaz: <i>zeugaz</i>
	-kin: <i>biozaquin, tristeaquin</i>	-kin: ez dago adibiderik
soz. pl. →	-kaz: <i>begiacaz</i>	-kaz: <i>onacaz</i>
	-kin: ez dago adibiderik	-kin: ez dago adibiderik

Aditzaren morfologia

	GANDARA	DE LA QUADRA
1) Nor-nori sailean →	<y>: <i>yat, yacaz, yac</i>	<j>: <i>jatan, jacaz, jaco</i>
2) Aditz-izenak egiteko		
- etan	<i>milletan, assentetaco</i>	<i>parquetan, jusguetan, erreinetan</i>
- tuten	<i>artuten, pariduten, aguertuten</i>	<i>sinistuten, escatuten, artuten</i>
- ten	<i>urteten, beteten</i>	<i>prestauten, errebocauten</i>

Beti ere, kontuan izan behar da bien artean 20 urteko denbora tartea dagoela eta, agian, desberdintasunak geografia kontuarenak izateaz gain belaunaldi kontua ere izan daitezkeela.

Taulak erakusten digunez, bien arteko alde nagusiak fonologiaren atalean leudeke; batez ere hiatoen trataeran. De la Quadrak Bermeoko hizkeran idazterakoan *u* eta *i* bokalekin hiatoan dauden bokalen artean hiatoa apurtzeko kontsonante bat tartekatzen du; *u*-ren kasuan <*b*> kontsonantea eta *i*-ren kasuan <*j*>: *santube, desterratubac, erreinuba* eta *gustija, oguija*... Gandara gernikarrak, oster, ez du kontsonanterik tartekatzen hiatoa apurtzeko: *gauea, buruac, ceruac* eta *guztiac, habia, andia*... Gaur egun, Bermeon eta Gernikan ez da kontsonanterik tartekatzen *u* bokalarekin hiatoan dagoen bokalaren artean, baina bai *i* bokalarekin hiatoan dagoen bokalaren kasuan: Bermeon [ʒ] ahoskera duen kontsonantea tartekatzen da eta, Gernikan helduek igurzkari ahostuna eta gazteek ahoskabea.

Horrez gain, taulan ikusten dugu Gandarak *-a* bokalarekin bukatzen den hitz bati *-a* artikulua gehitzean, mendebalean ohikoa eta zaharra den *-ea* bilakaera egiten duela: *eusquerea, direanac, Virjinearen*. Nolanahi ere den, De la Quadrak kasu hauetan *-ia* egiten du, hau da, erregela fonologikoa urrutirago eraman du 20 urte beranduago: *criaturia, penia, berbia, personia*. Gaur egun ez dugu desberdintasunik ikusten Gernikako eta Bermeoko hizkeren artean, biek eraman baitute erregela fonologikoa urrutirago eta *-ie* egiten da bi herrietan. Ez dakigu eta lekukotasun gehiagorik ezean ezin zehatz dezakegu, ordea, aldaketa batera egin duten ala garai ezberdinetan erregela bera egin duten. Gaur egun ikusten duguna da emaitza bera dagoela bi herrietan.

Gauza bera ikusten dugu *e* bokalarekin bukatzen den hitz bati artikulua gehitzen zaionean, hau da, Gandararen testuan *-ea* mantentzen bada ere, De la Quadrarenean *-ia* aurkitzen dugu eta, gaur egungo Gernikako eta Bermeoko euskaran, ostera, *-ie* egiten da. Beraz, ikusten da XVIII. mendean Bermeoko euskarak bere kontura egin zuela berrikuntza (beti ere hedadura zabalagoa izan zezakeela baztertu gabe). Agian, Bermeoko euskarak lehenago egin zuen *ia>ie* bilakaera Gernikako euskarak baino (kontuan izan pausu bat atzerago zegoela XVIII. mendean). Nolanahi ere den, gaur egun, behintzat, emaitza bera ikus genezake bi herrietan, beraz, badirudi isoglosa berak besarkatua leudekela Gernika eta Bermeo ezaugarri hau kontuan izanik.

Artikulua *o* bokalez bukatzen den hitzari gehitzen zaionean, ostera, De la Quadraren testuan ez da *-ue* bikalabidea gertatzen, gaur egun Bermeon gertatzen denaren kontrara. Horrela, bada, De la Quadraren testuan *escumacoa* aurkitzen dugu, baina gaur egungo Bermeotar jatorrak *eskoikue* esango luke *benetakue* edo *osue* esango zukeen bezala, beraz, erregela hau azken hiru mendeetan garatu dela dirudi. Bestalde, gaur egungo gernikar batek, aldiz, De la Quadrak bezala *eskumakoa* esango luke eta *benetakoa* zein *osoa*. Garai hartan Gernikan zer egiten zen ezin esan genezake, ez baitugu aurkitu adibide bakar bat ere ez Gandararen testuetan. Hala ere, badirudi erregela honek ez duela Gernikako euskaran eraginik izan, gaur egun *-oa* egiten baita bertan. Beraz, irudi luke berrikuntza hau ez dutela elkarrekin egin bi herriek. Bestalde, Gernika inguruko herriek Bermeorekin batera egin dute berrikuntza, nik dakidanez Nabarnizek, Ereñok, Eak, Gautezigz-Arteagak, Korte Zubik, Busturiak eta Mundakak. Errigoitin eta Morgan, ostera, ez dirudi berrikuntza hau eman denik, beraz, itxura guztien arabera, kosta aldeko berrikuntza da eta isoglosa ez da barrualderago heldu.

Kontsonanteei dagokienez, euskal hitzen hasieran <j> idazten dute bi autoreek. Gandararen kasuan, nahasmendu handiagoa dago, <j>-rekin batera <y> ere idazten duelako: *jayo*, *yayo*, *jatala*, *yacaz*, *yaztea*, *yoango*, *yanarira*. Ikusten denez, maiz hitz bera idazteko erabiltzen ditu <j> eta <y>: *jayo*, *yayo*. Lehenengo begiradan ezin genezake jakin <j> horrek zein ahoskera izango zukeen garai hartan edo zeren isla zen, baina pentsa daiteke hasierako hotsa eta hitz barrukoa ez direla berdinak. Hala ere, kontutan izanik <j>-ak [x] zein [j] adieraz dezakeela, baina <y>-ak [j] bakarrik,

ondoriozta daiteke [jajo], [jatala], [jakaś], [jaštea], [joaŋgo], [janarira], etab. ahoskatzen zela, beraz, [j]. Gauza bera De la Quadraren testuan ere: *jajac*, *jajo*... gisakoak baitauzkagu, baina orokorrean *jayo* idazten duelako. Gaur egun, aldiz, Gernikan [xajžo] ahoskatuko litzateke eta Bermeon, ostera, [džajžo]. Hala ere, hau hipotesi hutsal bat baino ez da eta Mitxelenak (1977, [1961]: 174) oin-ohar batean dioenarekin bat egiten dugu:

Sería muy importante determinar cuál es la pronunciación real en Vizcaya de bastantes formas que quedan enmascaradas en la escritura por escribirse uniformemente con *j-* .

Bestalde, testu bietan *izan* aditzaren orainaldiko lehen pertsona singularreko adizkian *naiz* > *nax* > *nas* bilakaera gertatu dela ikus dezakegu, mendebaleko hizkeretan ohikoa den bezala. Hala ere, De la Quadraren testuan 7 aldiz aurki genezake *naiz* izenordaina ere. Gaur egun, berriz, Bermeoko hizkeran aurkitzen duguna *nai* aldaera da, hau da, *-z* gabeko forma.³ Ez dakigu noiz gertatu zen aldaketa eta, gainera, mendebaleko hizkeretan baditu kideak ere, esate baterako Ondarroa, Berriatua eta Elorrioko hizkeretan *na* izenordaina erabiltzen da.

Morfologiari dagokionez, sozietiboa egiteko atzizkia izan dugu aztergai. Gandarak eta De la Quadrak biek erabiltzen dute *-gaz* atzizkia singularrean, baina Gandararen testuan *-kin* ere erabiltzen da. Gaur egun mendebaleko hizkerak hiru multzotan daude banatuta sozietiboaren erabilerari dagokionez: 1) singularrean *-gaz* eta pluralean *-kaz* dutenak, 2) singularrean *-gaz* eta pluralean *-kin* dutenak eta 3) singular eta pluralean *-kin* dutenak. Sozietiboko *-gaz* eta *-kaz* atzizkiak mendebal sartaldeko euskalkiek singularreko atzizkitik abiatuta egin duten berrikuntza bat da, hau da, mendebal sartaldeko euskalkietan ez dugu aurkitzen. Hala ere, harrigarri suertatzen da Gandara gernikarraren testuan *-kin* atzizkia erabiltzea sozietibo singularrean, honek goian aipatutako multzoetatik hirugarrengoan kokatuko bailuke Gernikako euskara, hau da, Gipuzkoako mendebaleko hizkeren barruan. Pluralean erabiliko balu, ordea, ez litzateke hain harritzekoa. Izan ere, gaur egun Gernikan eta inguruko herriak diren

³ Gogora bedi Azkuek 1891an egin zuen iruzkina, hots, *-z* hori ezabatu egin behar zela pluralaren marka zelako. Hala ere, larregi esatea litzateke Azkuek eraginda aldatu dela izenordaina herri hauetan eta agian anekdota hutsa bada ere, bitxia da bere jaioterria zen Lekeitio ez zela aldaketa hori gertatu, bertan *nax* esaten baita. Nonbait eragin balu, normalena bere jaioterrian eragin izana zatekeen.

Errigoiti, Kortezubi eta Ereñoko hizkeretan, behintzat, *-kin* atzizkia ere aurki genezake pluralean, baina ez da batere sistematikoa, *-kaz* ere erabiltzen baita. Beraz, badirudi isoglosen arteko dantza bat egon dela noizbait eremu honetan.

Aditzaren morfologian, nor-nori saileko adizkietan erabiltzen den kontsonanteari erreparatzeaz gain, aditz-izenak egiteko atzizkiei ere begiratu diegu. Nor-nori saileko adizkietan, Gandarak beti <y> grafema erabiltzen du. Honek, zalantzarik gabe esan nahi du XVIII. mendean [j] ahoskatzen zela Gernikan nor-nori saileko adizkietako hasierako kontsonantea. Gaur egun ere, orokorrean horrela da bai zahar bai helduengan, baina badirudi azken urteetan Bizkai kostaldeko hizkerak biltzen dituen isoglosa berri baten eragina ari dela sartzen, gero eta gehiago entzuten baitira *d-* formadun adizkiak, hots: *dast(e)*, *dasku*, *datzu*... De la Quadraren testuetan, ostera, beti aurkitzen dugu <j>. Hala ere, nor-nori saileko adizkiak behin ere ez dira agertzen <y> grafemaren bidez idatzita. Ez dugu asmatu datu honek adierazi nahi duena interpretatzen (gogora bedi, beste behin, gorago eman dugun Mitxelenaren aipua). Hala ere, gaur egun *d-* ahoskatzen da eta, beraz, mendebaleko kostako hizkerekin bat egiten du Bermeoko hizkerak. Hona hemen adibide batzuk: *datzo*, *dazt*, *daku*...

Aditz-izenak egiteko atzizkiei erreparatuta ikus dezakegu Gandara eta De la Quadrak antzera jokatzeko dutela. Partizipioa *-atu* duten aditzekin *-etan* atzizkia erabiltzen dute biek aditz-izenak egiterakoan; partizipioa *-tu* duten aditzekin, ostera, *-tuten* eta partizipioa *-te* edo *-au* dutenekin, aldiz, *-ten*. Gaur egun, ostera, joera nagusiak bestelakoak dira. Bermeoko hizkeran ez da apenas (edo sekula) *-etan* atzizkia erabiltzen; honen ordez *-ten* erabiltzen da. Gernikako hizkeran, ostera, alderantziz gertatzen da, *-etan* atzizkia nagusitu da eta *-ten* oso gutxitan erabiltzen da. Beraz, Bermeon: *kantaten*, *preparaten*, *urteten*, *beteten* esaten da, eta Gernikan, ostera: *kantetan*, *preparatan*, *urtetan* / *urteten*, *betetan* / *beteten*. Ikusten denez, Bermeoko hizkeran aditz-izenak egiteko *-ten* atzizki zaharra mantendu zen eta Gernikako hizkeran, ostera, *-etan* atzizki berria nagusitu zen gerora.

4. Gandararen euskararen bilakaera

Gandara eta De la Quadraren testuen arteko konparaketa egiteko, Gandararen testuetatik 1757koa, 1762koa eta 1764koa hartu baditugu ere, orain egin nahi genukeena Gandararen euskarak 10 urtean aldaketarik jasan duen ala ez aztertzea da. Horretarako goian aztertutako testuez gain, 1768ko data daukaten beste bi testu ikertu ditugu eta lehengoan eta oraingoan artean leudekeen desberdintasunak atera ditugu. Dauzkagun datuekin ez dugu aldaketa handirik ikusi, baina hala ere, Gernikako gaur egungo hizkerarantz doazen aldaketak antzeman daitezke 1768ko testuetan. Taulara ekarriaz, hauek genituzke 1768ko testuetan aurkitzen ditugun desberdintasun txikiak:

	1768aurrekoak	1768
1) i + v >	<i>eguzquia</i> (57), <i>gustia</i> (62), <i>eguia</i> (64)	<i>eguiya</i> (baina <i>anaiac</i> , <i>gustia</i>)
2) a + a > ea	<i>direanac</i> (57), <i>coitea</i> (62), <i>eusquerea</i> (64)	<i>dirian</i>
3) o + a >	????	<i>iguescua</i> , <i>amparua</i>
		baina: <i>goso</i> , <i>gustoac</i>

Taulari begiratuta, ikusten dugu 1768ra bitartean gertatu diren aldaketa txiki batzuk badirela. Bide batez, gertatu diren aldaketa guztiak fonologiari lotutakoak dira; ez daukagu aldaketa morfologikorik Gandararen testu hauen artean, aztergai ditugun ezaugarriei dagokienez, behintzat.

Hiatoan dauden *i* eta beste bokalaren artean 1768 aurretik Gandarak ez zuen inoiz kontsonante epentetikorik tartekatzen, baina 1768az geroztik <y> tartekatzen du. Goian ikusi dugu De la Quadrak berak 1784an joera hauze zeukala, beraz, iduri luke 1764ko Gandararen lanak bilakaera honen hastapeneko egoera erakusten duela. Izan ere, Gandararen 1768ko lanean ez da sistematikoki egiten aldaketa hau *vicia*, *barria*, *anaiac*, *gustiac*, etab. gisakoak ere idazten baititu. Bestalde, ikus daiteke ezaugarri hau Gernikaraino eta Bermeoraino hedatu zela denborarekin, lehen ikusi baitugu gaur egun bi herrietan emaitza bera daukagula ezaugarri honetan, nahiz eta ahoskera desberdina duten.

Bokalez bukatzen den hitz bati artikulua gehitzean 1768 aurreko Gandarak *-ea* bilakaera egiten duela ikusi dugu. 1768ko testuan, ostera, *dirianac* daukagu, hau da, 1784an De la Quadraren testuan aurkituko dugun *-ea*> *-ia*. Adibidea bakarra da, baina

gerora izan duen garapena ikusita pentsa daiteke *-ea> -ia* bilakaeraren hastapena islatzen duela adibide honek, urte batzuk beranduagoko De la Quadrarengan aurkitzen duguna, hain zuzen ere. Beraz, Gernikako hizkerak XVIII. mendean beste behin ere Bermeokoarekin bat egiten duela esan liteke. Bestalde, gogoratu lehen esan dugula gaur egun bi herrietan emaitza bera daukagula, hau da, *-ea>-ia> -ie* bilakaera.

Aurreko atalean esan dugu Gandararen testuan ez dagoela *o* bokalez bukatzen den artikuludun hitzik, baina hau esan dugu 1768 aurreko testuak aztertzen ari ginelako eta hauetan ez dagoelako horrelakorik. 1768ko testuetan, ostera, badira zenbait adibide eta honako hau da aurkitzen duguna: *onguiroa, gogoa, gosoa, gustoac...* Baina honekin batera: *iguescua, amparua* ere irakur genitzake. Honek erakuts diezaguke beste behin ere *-oa> -ua* aldaketa bidean zela jada, baina oraindik ez zela erregela sistematikoki aplikatzen. Lehen esan dugu De la Quadraren testuan *-oa* daukagula, baina gaur egungo Bermeoko hizkeran *-ue*. Behar bada bilakaera hau Gernika aldean hasi zen eta beranduago hedatu zen Bermeora, baina gero Gernikan atzera egin zen *-oa*-ra eta Bermeon aurrera jarraitu zuen bilakaerak.

5. Bermeoko euskararen bilakaera

Lehen esan bezala, ez daukagu De la Quadrak bi garai desberdinetan idatzitako testurik, beraz, ezin genezake bere hizkeraren bilakaera aztertu, baina bada beste eskuizkribu bat XVIII. mendeko Bermeoko hizkera islatzen omen duena eta, agian, De la Quadrak berak idatzia, baina eskuizkribua bera anonimoa da. Bestalde, kontuan izan behar da jatorriz De la Quadra ez zela Bermeotarra eta, agian, ez zuela %100ean asmatu XVIII. mendean Bermeon hitz egiten zen hizkera islatzerakoan. Hala ere, *Bermeoko XVIII. mendeko hirugarren eskuizkribu*-ko hizkera aztertuta, gehientsuenean De la Quadraren hizkerarekin bat datorrela ikus daiteke, aldaketa txiki batzuk egon arren. Agian hau izan daiteke arrazoi bat pentsatzeko bi eskuizkribuak autore berarenak direla, baina autore desberdinena izatekotan, De la Quadrak XVIII. mendeko Bermeoko hizkera islatzen asmatu zuela onar daiteke. Funtsean honako hauek dira bien artean aurki daitezkeen desberdintasunak:

	De la Quadra	Anonimoa
1)a+a>	ia: <i>berbia, catoliquia</i>	ia: <i>sariala, penia, arimia</i>
		ie: <i>santisimien, arimien, vicitcien</i>
2)e+a>	ia: <i>biar, egunian, betia</i>	ia: <i>maitia, biar, nevanian</i>
		ie: <i>semien, maitien</i>
3)o+a>	oa: <i>escumacoa, benetacoa, osoa</i>	oa: <i>odijoa, salvacinoa, juicijoa</i>
		ua: <i>gozua, parevacua, amodijosua</i>
		ue: <i>eternuen, poderosuenac, besuetan</i>

Taulari erreparatuz gero, ikus genezake desberdintasun guztiak fonologian ematen direla, beraz, bi testu hauen artean ere ez da aldaketa morfologikorik antzematen aztergai ditugun ezaugarriei dagokienez. Anonimoaren testuan pausu bat gehiago eman da erregela fonologiko hauetan, baina erregela oraindik ez da sistematikoki aplikatzen. Horrela, bada, *-a* bokalez bukatutako hitzei *-a* artikulua gehitzean, De la Quadrak *-ia* egiten du beti, baina anonimoak *-ie* egiten du batzuetan eta, maiz, hitz bera bi moduetara idazten du. Gorago esan dugu gaur egun Bermeon $a + a > ie$ egiten dela, beraz, badirudi XVIII. mendeko eskuizkribu horrek arau honen hastapenak islatzen dituela, Gandararen 1768ko testuetan ikusi dugun bezala.

-e bokalez bukatzen diren hitzei artikulua gehitzean, De la Quadrak *-ia* egiten duela ikusi dugu. Anonimoaren testuan *-ia* nagusitzen bada ere, *-ie* ere aurki genezake zenbait kasutan. Gaur egun Bermeon *-ie* egiten dela kontuan izanik, badirudi Anonimoaren testu honetan erregela horren hasierako egoera ikusten dugula berriro ere eta gerora Bermeon nagusituko den joera zabaltzen hasia zela jada XVIII. menderako.

-o bokalez bukatzen diren hitzei artikulua gehitzean, De la Quadrak beti *-oa* egiten duela ikusi dugu. Anonimoaren testuan, ostera, *-oa*, *-ua* edota *-ue* ere aurki genitzake. Gorago ikusi dugu Gandararen 1768ko testuetan jada *-ua* egiten zela, *-oa* nagusitzen bazen ere eta hau ikusita proposatu dugu aldaketa honen isoglosa barruko aldetik kostaldera hedatu zela, gero barrualdean atzera egin bazen ere. Anonimoaren testu honek, agian, gure argudioa indar lezake; izan ere, hiru aukera dantzan egoteak isla dezake isoglosa nahasketa dagoela eremu horretan eta oraindik ondo finkatu gabe dagoela erregela, hau da, noraezean dagoela Bermeoko euskara erregela honi

dagokionez. Gaur egungo Bermeoko euskaran, ostera, beti egiten da *-ue*, beraz, ikus daiteke XVIII. mendean abiatutako erregelak arrakasta izan duela gerora.

Ezaugarriok ikusita, esan genezake funtsean, Anonimoaren testuan ikus daitekeen hizkera De la Quadraren testuan ikus daitekeena baino berritzaileagoa dela. Beraz, Anonimoaren hizkera beranduagokoa dela ematen du.

6. Ondorioak

XVIII. mendeko Gernikako eta Bermeoko testuak aztertu ditugu Busturialdeako hizkeraren iragana ahal bezain zehatzen ezagutu ahal izateko, oraina aztertzeo beharrezkoa delako iraganaz zerbait jakitea. Horretarako, herri bakoitzeko testuek islatzen duten hizkera beste herriko testuek erakusten duten hizkerarekin erkatu dugu, XVIII. mendean Gernikako hizkeratik Bermeokora zegoen aldea handia hala txikia den ikusteko. Ezaugarriak zerrendatu ostean ikusi ahal izan duguna da euskara mailan ez dagoela alde handirik eta, funtsean, erregela fonologikoetan datzala desberdintasuna.

Horrez gain, herri bakoitzeko testu bat baino gehiago izan dugunez eskura, testuen artean dauden desberdintasunak ere aztertu ditugu eta gauza bera da ikusi duguna, hau da, desberdintasun nagusiak erregela fonologikoetan gauzatzen direla. Bestalde, Bermeoko XVIII. mendeko eskuizkribu anonimoan De la Quadraren eskuizkribuan baino urrutirago eraman dira erregela fonologikook. Honek iradoki lezake testu hau beranduagokoa dela eta gaur egungo Bermeoko hizkeratik De la Quadraren testua baino gertuago dagoela. Kasu batzuetan ikus daiteke XVIII. mendeko Gernikako hizkeran egiten zena baino pausu bat aurrerago egin duela Bermeoko hizkerak, adibidez $o + a > -ue$ egitea. Gandararen testuetan gehienez ere *-ua* aurki daiteke, beraz, pentsa daiteke hasiera batean Bermeo eta Gernika isoglosa berak besarkatzen zituela, baina gerora banandu egin direla, gaur egungo Gernikako hizkeran ez baitago, Bermeoko hizkeran dauden hainbat ezaugarri.

7. Bibliografia

- Arana Martija, Jose Antonio, 1976, "Gabon Kanta de Guernica de 1757", *Euskera* XXI, 89-98.
- _____, 1984, "Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea", *Euskera* XXIX, 499-510.
- Bilbao, Gidor, 1997, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak: I. *Doctrina christinaubarena*", *ASJU* XXXI-1, 247-336
- _____, 1998, "De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II)", *ASJU* XXXII-1, 165-229.
- _____, "Bermeoko XVIII. mendeko hirugarren eskuizkribua", argitaratu gabe.
- Kaltzakorta, Xabier, 1999, "Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak", *Euskera* XLIV, 129-209.
- Camino, Iñaki, 2004, "Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian" *Euskera* XLIX, 67-95
- Mitxelena, 1977 [1961], *Fonética histórica vasca*, *ASJU*-ren gehigarriak 4, Donostia.